

Nerabeak harremanetan jartzeko duten modu berria: sare sozialak

Nerabezaroan, nerabeek besteekin harremanetan jartzeko beharra dute. Oso inportantea da talde bateko partaide izatea eta berdinkideekin identifikatzea, nerabeak bere burua segurtatuta senti dezan. Sare sozialak, Interneteko plataformak dira, pertsona taldez osatuak daudenak eta harreman mota desberdinak asetzeko elkarlotzen direnak:

- Informazioa partekatzeko: esperientzia pertsonalen inguruko iruzkinak egiteko, argazkiak, bideoak...
- Komunikatzeko: iritziak emateko, komentarioak egiteko, hitz egiteko eta komunean dituzten interesei buruzko informazioa partekatzeko.
- Aurretiaz ezarritako harreman loturak sendotzeko eta lagun edo ezagun berriak egiteko (zenbaitetan beste herrialde batzuetakoak).
- Ondo pasatzeko, entretenitzeko: jolasteko, musika entzuteko...
- Ikasteko, informatzeko, trebatzeko, ezagutzak berenganatzeko.
- Sormena agertzeko: blogak sortuz, gaitasunak, abildadeak erakutsiz...

Nerabeak, arrisku egoera asko ditu bere inguruan. Sare sozialetan, ezezagunak diren harremanak erraz egiten dira; automatizatutako funtzio gehiegi daude, eta askotan ez dira kontziente lotura baten klikatzeak ekar diezaioketen ondorioez; oso ezagunak ez diren funtzioak dituzte eta erakargarriak direnak, baita aurreikusgarritasun gutxiko ondorioak ere; argitaratutakoak oihartzun azkarra eta zabala izaten du; informazio asko erregistratu eta barnebiltzeko tresna indartsuak eta eraginkorrak dituzte; eta askotan kontuen pribatutasunaren konfigurazioa ez da oso argia izaten. **Arriskua, tresnetan egoteaz gain, bada ere erabiltzeko moduan.**

Gurasoen betebeharra:

- Sare sozialak ezagutu: zer diren, zertarako balio duten eta nola erabili behar diren.
- Sare sozialen sarbidea ezagutu eta ezjakintasunaren aurrean seme-alabei eskatu irakatsi diezaguten.
- Internetera sartu eta orrialde zehatzetan bilatu, datuak babesteko informazioa eta baita segurtasunari buruzkoa ere.
- Bere lagunenganako eta interesenganako interesa azaldu.
- Sare sozialak, beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko modu bakartzat izan ez dezatela sustatu.
- Erabilera arduragabeak izan ditzakeen arriskuez ohartarazi.
- Beraiengan konfiantza izan, sare sozialen erabilera egokia burutzen ari direla egiaztatu ondoren.

- Erabilera kontrolatu: konexioa denbora zehatz batera mugatu, Web orrialde batzuetara soilik sartzen utzi...
- Bestelako aisialdi eta jarduerak sustatu: kirola, musika, antzerkia...
- Datu pertsonalekin eta intimitatearekin kontu handiarekin dabiltzala ziurtatu: ez dutela beraien helbide edo telefonoa ematen, profileko argazkia ondo aukeratua dagoela, nahi ez duten ezer eskegita ez dutela, beste pertsona bati buruzko zerbait eskegi aurretik pertsona horri baimena eskatzea, pribatutasun eta blokeo aukerak irakurtzea...
- Jaso eta bilatzen duten informazio guzti horretatik, soilik baliogarria dena sailkatzen irakastea (zentzu kritikoa garatzea).
- Errespetu, segurtasun, erantzukizun eta sen onez hezteak.

Laburpena

Familiek, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien ezagutza izan behar dute beraien seme-alabei, haien erabilera arduratsua irakasteko, eta era berean, gehiegizko erabilerak edo pribatutasun minimoak ez betetzeak eragin ditzakeen arriskuak saihesteko.

Ainhoa Manzano Fernández Doktorea
Juan Luís Martín Ayala Doktorea
ETXADI
Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia